

## CECILIA BARRIGA

Cecilia Barriga zine zuzendari eta dokumentalistak bere jatorriari buruzko hausnarketa egiten hasi zuen *Sexu gunea berriro politizatzea egungo arte jardunetan* mintegi barruko hitzaldia. Cecilia Barriga Txilen jaio zen, Suaren Lurraldean ia-ia, erdi mailako familia batean, baina baliabide ekonomiko urrikoak zirenez itxura egitera behartuta zeuden goragoko mailakoak zirela ikusarazteko. "Hain urrutikoa" izateak bultzaturik, irudizko mundu bat sortu zuen, beste munduaren -Suaren Lurraldera joaten ziren bidaiari aberatsei edo zoroiei entzundakoaren bidez bakarrik ezagutzen zuen mundu haren- imaginarioa. 60ko hamarkadan gurasoak banandu egin ziren; garai hartan Txilen ez zen oso ohikoa banandutako gurasoen alaba izatea. Aita irudirik ez izatea ere errepresentazio elementu, performance elementu, bihurtu zen. Ceciliaren hitzetan bi imaginario horiek "tresna zoragarri eta samingarriak izan ziren, pertsona helduak garenean ditugun sormen baliabideen lehengaiak".

1977an Madrilera iritsi zen Txileko diktaduratik ihesi. Azaldu zuenez, garai hartan Txilen ezin zen ikasi askatasunarekin zerikusia zuen ezer ere, zinea, besteak beste. Madrilen, *mugida* garaia puri-purian zela, Irudi Fakultatean hasi zen ikasten, emakumezko oso ikasle gutxi zeuden eta berak aitortu zigunez, "filmategian bizi ginen". Garai hartan ezinezkoa zen zinea egitea agintean zeudenen sokakoak ez ziren ikasleentzat "baina orduan bideoa atera zitzaigun bidera. Orduan hasi zen bideo-arte...".



1982. urtean Cecilia Barrigak lehenengo lana egin zuen, *Entre actos*, bideo-artetzat har daitekeen bideo xume eta ausarta, etxeko lanetarako erabiltzen diren objektu eta tresnekin lotzen duten keinu bakarti eta errepikakorrak egiten dituen emakume baten erretratu minimalista. Antzeko modua baliatzen du emakumeak, ekintza errepikakor eta bakarkakoa alegia, bere gorputzarekiko kontaktuan hau plazererako objektu gisa ikertzeko. Azken batean, etxeko lanaren bakardade itogarriaren eta errepikapenaren irudikapena da, eta masturbazioaren errebindikazioa, plazer indibidualaz jabetzea askatzeko bide gisa harturik.

Aldi berean dokumentalak egiten hasi zen, betidanik liluratu izan du bitarteko horrek eta fikziozko lanak egiteko inspirazio iturri garrantzitsua da berarentzat. "Nire ustez dokumentala bidaia da, bidaia horretan dokumentalean atera nahi dudan elementuari edo pertsonari laguntzen diot, historia deskubritu ahala egiten dut kontaketa. Dena dela, dokumentalean ageri den objektua ahalik eta gutxien banpirizatzen saiatzen naiz" esan zuen.

Lehenengo dokumentala egiteko Madril inguruko herri bat aukeratu zuen: Alcobendas; 1984. urtea zen eta izenburu hau jarri zion: *Alcobendas puede ser un nombre de mujer*. Zer da emakume izatea? galdera xume hori oinarri hartuta herri horretako hainbat emakumeri hausnarketa egiteko eskatu zien eta itxura batean hain erraza den eta kultur mailan hain mugatua dagoen kontzeptu hori definitzea zein zaila den egiaztatu zuen modu atseginean. Garai hartan sortu berria zen Emakumearen Institutuak sari bat eman zion lan hari.

Bitarteko gutxi izan ditu beti lanerako, baina ezer egin gabe egon edo baliabide gutxirekin lan egin aukeratu behar badu nahiago du bigarren aukera, "Ezin naiz gora begira gelditu, nahiz eta baliabiderik ez izan". Filosofia horri jarraituz egin zuen dokumental eta bideo esperimentalaren arteko proiekturik ezagunenetakoa 1988 eta 1990 bitartean: *Encuentro entre dos reinas*. Dekonstrukzio eta berridazketa lana da, Greta Garbo eta Marlene Dietrich zineko bi izar handien filmak erabili zituen eta muntaketa erabiliz istorio iradokitzaile eta probokatzaile batean elkartu zituen, grina eta maitasuna ardatz zirela. Bideo horrek ospe handia lortu du mundu zabalean, bereziki Ameriketako Estatu Batuetan, unibertsitateetako zine, genero eta queer teoria aztertzen duten departamentu gehienek eskuratu baitute.



Kamera memoria historikoa sortzeko arma da. Cecilia Barrigak esan zuen ona dela pertsona bakoitzak bere artxibo historikoa edukitzea, ez dakigu eta noiz izango dugun berreskuratzeko beharra. "Niretzat kamera bolaluma bezalakoa da, beti eramaten dut aldean, ez baitakit noiz erabili beharko dudana. Gizarte arazoekiko grina oso bizirik dut, gazte-gaztetandik diktadura jasan behar izan nuen eta uste dut hortik datorkidala nire lanaren alderdi politiko hori eta horregatik dut beti kexu agertzeko arrazoiren bat, baina munduan han eta hemen ibiltzea ere gustatzen zait eta ikusten dudana jasotzea. Uste dut gaur egun kameralariak historialari garela neurri batean. Memoria historikoa sortzen dugu", azaldu zuen.

Gizarte arazoekiko kezka bultzatuta 1995ean Beijingera joan zen Emakumeen Laugarren Mundu Biltzarrera; *Pekín no fue un sueño* dugu haren lekuko. Munduko bazter guztietatik joandako emakumeek eztabaidatu zituzten gaiek ustekabeko garrantzia hartzen dute gaurko ikuspegitik begiratuta.

Hitzaldian *¿Por qué no una mujer?* izeneko lana ere aurkeztu zuen Cecilia Barrigak. 1996. urtean egindako bideo aktibista da. Bideoa egiteko kaleko jendeari eta parlamentuko kideei galdera hau egin zion: izan al daiteke emakumezko bat Espainiako gobernuko buru? Eman zizkioten erantzunetan oinarritua egin zuen filma.

Ondoren, Kuban 1994an filmatu zuen *La herida de mi ojo* lana ikusi zen. Cecilia Barriga kamera txiki batekin joan zen bakarrik Kubara eta *Garai Bereziaren* unerik latzenak bizitzen ari ziren kubatarren lekukoak bildu zituen.

"Fikziozko film luzea egitea obsesio bat da; denok izan ohi dugu lehenago edo beranduago. Obsesio horrek beste formatu batzuk -film laburrek, esaterako- eskaintzen diguten aberastasun eta askatasun guztia baztertzerantz bultzatzen gaitu, izan ere, film laburrak industria ekoizpenarekin baino zerikusirik handiagoa dute plastika bisualarekin" adierazi zuen Cecilia Barrigak. 2000. urtean *Time's up!* lehenengo film luzea egin zuen, film independentea da, New Yorken filmatutakoa; bertan zine konbentzionalaren arau zenbait hautsi eta psikoanalista baten istorioa kontatu zuen, gaixoak hirian zehar kalez-kale dabilen autokarabana batean hartzen zituena. Filma Donostiako zinemaldian aurkeztu zen 2000. urtean.

Bukatzeko Cecilia Barrigak esku artean darabilen proiektua osatzen duten bideoetako bat aurkeztu zuen; proiektu horrekin batera bigarren film luzea prestatzen ari da. "Bideo hauek galdera hiztegi bat bezalakoak dira. Lan prozesua oso sinplea da, harrigarria iruditzen zerbaitekin topo egiten dut, filmatu eta gero galderak egiten dizkiot neure buruari. Halakoetan irudiak pizten du galdera" azaldu zuen.

Ondoren *El camino de Moisés* izeneko dokumentala eman zuen. Cecilia Barrigak 2003. urtean egin zuen Televisión Españolaarentzat, 55 minutukoa da eta gizon bihurtu zen emakume baten istorioa azaltzen du. "Moisesek bere nortasuna nola eraiki duen kontatzen du eta baita beste gatazka bati nola egin behar dion aurre ere, genitalak operatu edo ez operatu erabaki behar baitu". 1997. urtean izen eta sexu aldaketa onartu zion epaile andreak ez zuen horretara behartu. Nahikoa izan zuen frogatzea obulutegiak eta bularrak kendu zituela eta urteak zeramatzala hormonak hartzen. Dokumentalak Moisesek urratutako bidea ezagutzea proposatzen du, espero ez dugun bukaera ikusiko dugu eta.

-----

## **CC**

Testu hau Attribution-NonCommercial-ShareAlike gisako Creative Commons lizentzia baten mende dago. Kopiatu, banatu eta jende aurrean erakuts dezakezu irabazi asmorik gabe baldin bada. Horrez gain, hemendik eratorritako lanik sortzen baduzu, lizentzia beraren mende egin behar duzu.

La directora de cine y documentalista Cecilia Barriga comenzó su conferencia celebrada dentro del seminario *La repolitización del espacio sexual en las prácticas artísticas contemporáneas* reflexionando sobre su origen. Cecilia Barriga nació en Chile, casi en Tierra de fuego, en el seno de una familia de clase media pero con escasos recursos económicos, que se veía obligada a representar un estatus superior. El ser de "tan lejos" la obligó a crear un mundo imaginario del otro mundo, ese que conocía sólo a través de los testimonios de los viajeros multimillonarios o locos que viajaban a Tierra de fuego. Durante la década de los 60 sus padres se separaron, no era muy usual por aquella época en la sociedad chilena el ser hija de padres separados. La ausencia de la figura del padre se convirtió también en elemento de representación, de performance. Estos dos imaginarios fueron, en opinión de Cecilia, "unas herramientas maravillosas y dolorosas, la materia prima de los recursos creativos que poseemos cuando somos mayores".

En 1977 llegó a Madrid huyendo de la dictadura chilena, según explico, en ese momento en Chile era imposible estudiar nada que tuviera que ver con la libertad, como el cine. En Madrid, en plena *movida madrileña*, comenzó a estudiar en la Facultad de Imagen donde la presencia de las mujeres era muy minoritaria y donde -en palabras de Cecilia- "vivíamos en la filmoteca". Durante esos años era imposible hacer cine para los estudiante que quedaban fuera del círculo de poder, "pero en ese momento se nos cruzó el vídeo en el camino. Comenzaba el vídeo-arte...".

En 1982 Cecilia Barriga realiza su primera obra, un sencillo y atrevido vídeo enmarcado dentro del video-arte *Entre actos*, un retrato minimalista de una mujer que realiza solitarios y repetitivos gestos que la relacionan con objetos y utensilios del trabajo doméstico. De un modo paralelo se muestra el acto repetitivo y solitario de contacto con su cuerpo como un objeto de placer. En el fondo es la representación de la opresiva soledad, de la repetición del trabajo doméstico, y la reivindicación de la masturbación como placer individual, como una vía de liberación.

Al mismo tiempo comenzó a trabajar con el documental, un medio que siempre la ha fascinado y que considera una importante fuente de inspiración para la ficción. "Entiendo el documental como un viaje en el que acompaño al elemento o persona que voy a documentar, construyo el relato a medida que voy descubriendo la historia. De todas maneras, trato de vampirizar lo menos posible el objeto documentado", afirmó.

Alcobendas, un pueblo de las afueras de Madrid, fue el escenario elegido en 1984 para filmar su primer documental: *Alcobendas puede ser un nombre de mujer*. Bajo la simple pregunta de ¿Qué es ser mujer? Se propone a distintas mujeres de esa ciudad una reflexión y una divertida constatación de la dificultad para definir un concepto aparentemente fácil y culturalmente acotado. Este trabajo recibió un premio del entonces recién creado Instituto de la Mujer.

Siempre ha trabajado con pocos medios, pero afirma que entre no hacer y hacer con poco, prefiere lo segundo, "No puede ser que por no tener paralice mi proceso de trabajo". Siguiendo esa filosofía y a medio camino entre el documental y el vídeo experimental se sitúa unos de sus proyectos más conocidos, *Encuentro entre dos reinas* de 1988-1990, un experimento de desconstrucción y reescritura, en el se utilizan películas de dos grandes divas del cine, Greta Garbo y Marlene Dietrich. Cecilia Barriga, valiéndose del montaje, consigue unirlas en una sugerente y provocadora historia de deseo y amor. Este vídeo ha sido reconocido como pieza de culto a nivel internacional, especialmente en Estados Unidos, donde ha sido

adquirido por casi todos los departamentos de estudios de cine, de género y teoría *queer* de sus universidades.

La cámara es un arma de creación de memoria histórica. Cecilia Barriga afirmó que es positivo que cada persona tenga su archivo personal de historia, ya que no podemos saber cuando nos encontraremos en la necesidad de recuperarlas. "Para mí la cámara es como mi bolígrafo, voy a todas partes con ella porque no se cuando necesitaré usarla. Soy una ansiosa de lo social, creo que esta parte política de mi trabajo viene porque sufrí la dictadura de muy joven y por eso tengo que estar siempre protestando, pero también me gusta ir a diversas partes del mundo y documentar lo que me encuentro. Creo que hoy en día los cámaras somos, de alguna manera, historiadores. Creamos memoria histórica", explicó.

Su interés por lo social la llevó en 1995 hasta Beijing donde tuvo lugar la Cuarta Conferencia Mundial de la Mujer. *Pekín no fue un sueño* es una pieza testimonial de lo que fue ese foro donde mujeres de todo el mundo discutieron temas que hoy con la perspectiva del tiempo cobran una inesperada importancia.

Durante su intervención Cecilia Barriga también mostró su trabajo titulado *¿Por qué no una mujer?* un vídeo activista de 1996 donde ciudadanos, junto con parlamentarios y congresistas de aquel momento responden a la cuestión ¿puede haber una mujer como presidenta del gobierno en español?.

Seguidamente, se pudo ver el comienzo de *La herida de mi ojo* un trabajo rodado en Cuba en 1994. Cecilia Barriga viajó hasta la isla sola con una pequeña cámara y recogió los testimonios de los cubanos/as que estaban en el momento más duro del *Período especial*.

"La realización de un largometraje de ficción es la obsesión por la que siempre pasamos; esto nos hace a veces despreciar toda la riqueza y libertad que nos dejan otros formatos, como son los cortometrajes, las piezas más experimentales vinculadas mas a la plástica visual que a la producción industrial", afirmó Cecilia Barriga. En 2000 rodó su primer largometraje *Time's up!* Una película independiente rodada en Nueva York, saltándose varias reglas del cine convencional, que cuenta la historia de una psicoanalista que decide atender a sus pacientes en un auto caravana que se desplaza por las calles de la ciudad. La película se estrenó en el Festival de San Sebastián de 2000.

Cecilia Barriga concluyó su intervención presentando uno de los vídeos que integran el proyecto en el que está trabajando actualmente en paralelo con la preparación del que será su segundo largometraje. "Estos vídeos son como un diccionario de preguntas. El proceso de trabajo es simple, me encuentro con algo que me sorprende, lo filmo y después me planteo preguntas. En este caso, es la imagen la que provoca la pregunta", explicó.

A continuación se proyectó *El camino de Moisés* un documental que Cecilia Barriga realizó en 2003 para Televisión Española. En el documental, de 55 minutos de duración, se relata la transformación de una mujer en hombre. "Moisés relata cómo ha conseguido reconstruir su identidad y se enfrenta a un nuevo conflicto: la decisión de operarse o no los genitales", explicó Cecilia. En septiembre de 1997 la juez que le concedió el cambio de nombre y de sexo, no le exigió que se sometiera a esta operación. Fue suficiente demostrar que se había extirpado los ovarios, las mamas y que llevaba años hormonándose. El documental propone recorrer el camino de Moisés hasta un final no previsto.

